

ITXAROPENIK GABE

Oharreko testua: Ez dago itxaropenik. Agoniaren eta nahastearen artean harrapatuta. Ez dakit non nagoen. Segundo bat eta hemen nengoen. Pausoak entzuten ditut. Bitxia da hau bukatzea.

Irrisarri Land-en nengoen, lurretik 50 m-ra eta 900 m luze zuen tirolina zegoen. Tirolinan nengoen semearekin, eta, une batetik bestera, sokak hautsi ziren eta biak amildu ginen.

Bat-batean, nire semeak esnatu egin ninduen, eta beldurtuta, esan zidan ez nekiela zer gertatu zen, ezta zergatik ez geunden hilda ere. Ni bera bezain izututa nengoen.

Ikertzen hasi ginen, eta ikusi genuen lekua labirinto bat zela, hormak, zorua eta sabaia, eta argiak ere kolore hori distiratsukoak zirela.

Egun batzuetan janari bila ibili ginen, baina jakin genuen ez zirela aski, eta bereiztea erabaki genuen. Nire bizitzan egin dudak akats larriena izan zen. Ez nuen berriro ikusi. Ez nekien zer egin.

Irteera bakarra bilatzen nuen eta gero eta maniatikoago eta eroago bihurtzen nintzen. Ez nuen janaririk eta nire azala jaten hasi nintzen. Gose ikaragarri handia izatera iritsi nintzen. Eta bendak aurkitu nituenean, haiekin zer egin nezakeen bururatu zitzaidan ideia kontatzeko ez nengoela prest konturatu nintzen. Une horretan berreskuratu nuen sendotasuna eta konturatu nintzen ihes egiten lagunduko zidan zerbait bilatu behar nuela. Bilatzen ari nintzela, laguntza oihu bat entzun nuen, ezaguna egiten zitzaidana.

Nire semearena zen! Korrika egin nuen nola nengoen ikusteko, baina korrika egiten nengoela, estropezu egin eta berriz ere ilunpean erori nintzen.

Aurrekoa bezalako leku batean esnatu nintzen, baina koloreak kontrakoak ziren. Leku hori ikaragarria izan zen, inoiz ez nengoen lasai, etengabe jazartzen baininduten nonnahi, eta tortura hartatik ateratzeko irrikaz nengoen. Hala izan zen hainbat egunez.

Ia ezin nuen gehiago!!!!. Baina... ate beltz misteriotsu bat aurkitu nuen, ez zintuela sartzera gonbidatzen!!!!. Baina, hala ere, ez zitzaidan batere axola, tortura koloretsu hartatik ihes egitea besterik ez nuen nahi eta!!!!

Sartu eta zulo luze eta estu batetik erori nintzen eta hemengo gela beltzean bukatu nuen.

Leku honek erotzen nau!!!! eta sufrimendu honekin betiko bukatzea erabaki dut, ezerezetik labana atera baita.

Bakarrik esan nahi dut, hemen erortzen den zoritxarreko horrentzat itxaropenik ez duela izango!!!!.